

## MAILEGUAK

ARTIUMeko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroak maileguen zerbitzua erabili nahi duten pertsonen eskura jarriko du bere dokumentuen parte bat. Zerbitzu honen eskaera ARTIUMeko liburutegian egin beharko da, horretarako emango den orria betez.

Ondoko materialak mailegatu ahal izango dira: ikus-entzunezkoak (DVDak, Cdak eta CD-Rom-ak) eta komikiak. Ezingo dira mailegatu liburutegiaren nahiz museoaren jardueretarako beharrezkoak diren dokumentuak, ezta liburutegian bertan erabili beharrekoak direnak ere eta, jakina, ezta aipatutako sailtakoak ez diren dokumentuak ere.

**Liburutegiko erabiltzaile karneta dela medio, karnet horren jabeak eskubidea izango du guztira 4 dokumentu mailegatzeko: ikus-entzunezko 2 eta komiki 2. Kide elkartuaren karneta duenak guztira 6 dokumentu jaso ahal izango ditu maileguz: 3 ikus-entzunezko eta 3 komiki. Mailegu aldia 7 egunekoa da.**

Liburutegiaren katalogoa internet bidez ikus daiteke ondoko helbide honetan:  
<http://biblioteca.artium.org/>

Maileguen zerbitzua erabili ahal izateko erabiltzaile karneta edo kide elkartuaren txartela erakutsi beharko da. Txartel hori norberarena eta besterenezina da, eta mailegua txartelaren jabeak egin ahal izango du soilik.

Beste erabiltzaile batek maileguz duen dokumentu baten erreserba egin ahal izango da. Itzultzean, liburutegitik jakinaraziko zaio eskatzaileari dokumentua berriz ere eskuragarri dagoela. Erreserbak hiru egunez mantenduko dira

Epeari dagokionez maileguaren baldintzak betetzen ez dituen mailegatzailari egun bateko gabetze-zigorra ezarriko zaio atzeratu den eguneko eta dokumentuko. Dokumenturen bat galdu edo hondatuz gero, mailegatzailak ordezkua ekarri beharko du. Arau ez betetzeak edota sei hilabeteko epean dokumentuak ez itzultzeak mailegu-karneta behin betiko galtzea ekarriko du.

Emandako datu pertsonalak Norberaren Datuen Babeseko abenduaren 13ko 1999/15 Lege Organikoaren arabera tratatuko dira.

## WEB-AREN BIDEZKO ZERBITZUAK

Liburutegiaren bazkide baldin bazara, gure katalogoko bazkideen atalean sartu ahal izango zara (<http://biblioteca.artium.org/>) zure maileguak ikusi, berri-erreserbak ikusi eta gogokoenak kudeatzeko.

Eragiketa horiek egin ahal izateko zure erabiltzaile kodea eta pasahitza sartu beharko dituzu. Erabiltzaile kodea honako hau da: zure izena, azpiko gidioa, lehen abizena, hutsunea, eta bigarren abizena, guztia letra larriz eta azentu markarik gabe.

Adibideak:

Edurne Arregi Fernández: EDURNE\_ARREGI FERNANDEZ

José María Ruiz de Eguino Asteasu: JOSE MARIA\_RUIZ DE EGUINO ASTEASU

Pasahitza zure irakurtzaile zenbakia da (NAN zenbakia letrarik gabe, pasaporte zenbakia edota kide elkartu gisa duzun zenbakia). Zalantzarik izanez gero, galdetu lasai.

Ondoko eragiketak egin ahal izango dituzu:

- Maileguak berri-erreserba eta ikustea. Horretarako sar zaitetz Mailegatutako aleak dioten tokian eta jo Berri-erreserba. Sistemak esango dizu berri-erreserba zuzen egin den. Dokumentuen mailegua behin eta astebeterako berri-erreserba ahal izango duzu.
- Dokumentu baten berri-erreserba: horretarako katalogoan bilatu behar duzu eta mailegatuta baldin badago, berri-erreserbatu nahi duzun dokumentuaren bisualizazio osoko pantailan funtsen erlaintzetik egin dezakezu berri-erreserba. Mailegaturik dauden dokumentuak baizik ezin dira berri-erreserbatu. Liburutegian alea jasotzen dugunean, jakinarazi egingo dizugu eraman ahal izan dezazun. Abisua bidali ondoren dokumentua hiru egunez gordetzen da gehienez ere. Bazkideen ataletik zure berri-erreserba ikusi ahal izango duzu.
- Isunak ikustea, halakorik balego, eta zure erabiltzaile soslaiaren sartzeara. Zure soslaiaren datuen bat okerra bada, jar zaitetz gurekin harremanetan ([biblioteca@artium.eus](mailto:biblioteca@artium.eus)) eta zuzenduko dugu.
- Gogokoenak kudeatzea (ezabatu eta aldatzea). Gogoan izan katalogoko dokumentuen bisualizazio osoko pantailan sortzen direla.

## RSS ZERBITZUAREN HARPIDETZA

Zerbitzu honek interesatzen zaizkizun bilaketari buruzko informazio eguneratua izateko aukera emango dizu. Zure interesekoak diren gaietan (komikiak, pelikulak, arkitektura, eta abar) eskuratu ditugun azken aleari buruzko informazioa izango duzu, esate baterako. Nola egin ez badakizu guri galdegin diezagukezu. Edukiak jasotzeko formatu honi buruzko informazio zabala aurkituko duzu <http://www.rss.nom.es/> web orrian ere.